



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

GRADU AMAIERAKO LANA

Poesia itzulia euskaraz - Gata Cattanaren *Mohs eskala*

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua

2021-2022 ikasturtea

Egilea: Eider Beobide Urkizar

Tutorea: Bego Montorio Uribarren

Filologia eta Historia saila

AURKIBIDEA

Laburpena	2
Sarrera	4
Testuingurua	6
Egilea, Gata Cattana eta Ana Isabel García Llorente.	6
Obra, La escala de Mohs.	8
Aukeratutako poemen lagina.	10
Metodologia	12
GrALaren metodologia	12
Itzulpen enkargua	12
Itzulpen prozesuaren faseak	13
Azterketa	14
Musikalitatea	14
Esaldien ordena	17
Genero kontuak	21
Ondorioak	24
Bibliografia	26
Eranskinak: Jatorrizkoa eta itzulpena	30

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honen helburua literatura itzulpenean sakotzea da, bereziki poesiaren itzulpenean, eta ikasketetan zehar egin dugun moduan, itzulpen praktika bera eta horren gaineko gogoeta uztartu nahi izan dugu, horrela prozesuaren ezaugarri eta zailtasunak identifikatu eta haiek behar bezala aztertzeke.

Horretarako, euskarara itzuli gabe dagoen egile garaikide bat aukeratu dugu, Gata Cattana artista polifazetikoa (Adamuz, 1991 - Madril, 2017). Egokia iruditu zaigu literatura eta musika uztartzen zituen egile honen obra lantzea, gaur egun gero eta ohikoagoa den arte generoen tarteko nahasketaren erakusle delako, besteak beste.

Beraz, GrAL honetan Gata Cattana idazle eta raperoaren *La escala de Mohs* poema-liburua hartu dugu oinarri gisa.

Horrenbestez, lehenik eta behin, egilearen eta obraren dokumentazio-lan bat egin dugu hurrengo urratsetarako prestatzeko. Pausu horri esker testuinguruan kokatu ahal izan gara eta itzultzeko beharrezkoa genuen informazioa bildu dugu.

Jarraian, itzulpen-enkargua sortu dugu, zeinak balio izan digun prozesu guztian zehar geure burua kokatzeko eta gidatzeko. Aipatutako aurreko bi urratsek eragina izan dute itzulpen-prozesuan, hau da, pausu horiek lagundu digute erabakiak hartzeko orduan ebazten zein eta zergatik hartu.

Geroxeago, hortaz, poema-lagina itzultzeari ekin diogu, hiztegi (elebakar eta elebidun), corpus, bideo eta erabilgarriak egin zaizkigun tresna guztiekin. Horren ostean, tutorearen gidaritzapean itzulpenak beharrezkoak zituen zuzenketa guztiak egin ditugu.

Atal horren ondoren, interesgarria iruditu zaigu itzulpenaren inguruko hausnarketa egitea hiru erronka nagusitan zentratuz: musikalitatea, esaldien ordena eta genero kontuak. Hautatutako poemen laginak aproposak ziren hiru erronkak aztertzeke, eta beraz, haien inguruko gogoeta sakona egitea lortu dugu. Gainera, hausnarketa horretan aukera izan dugu guk aurkitutako zailtasunak idazlearen ezaugarri eta estiloarekin lotzeko, eta ondorioz, gogoeta prozesu baliagarria izan da.

Lanarekin amaitzeko, azken atalean gogoeta horri esker ateratako konklusioak aurkeztu ditugu. Bertan, egindako dokumentazio lan, itzulpen eta hausnarketarekin ikasitakoa eta ondorioztatutakoa biltzen saiatu gara —baita lau urte hauetan zehar ikasitakoarekin

lotzen ere—, interesgarria izan daitekeelakoan. Bestalde, azpimarratzekoa da amaierako lan hau baliagarria egin zaigula geure buruari frogatzeko benetan barneratu ditugula ikasketetan landutako gaitasunak.

1. Sarrera

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu Amaierako Lan (GrAL) honetan, Gata Cattana artista polifazetikoaren *La escala de Mohs* liburuaren zati baten itzulpena eta izandako itzulpen prozesua aztertuko ditugu. Literatura obra hori ez dago oraindik beste hizkuntzetara itzulia, eta noski, ezta euskaratua ere. Poema-liburuak sari garrantzitsurik irabazi ez duen arren, bai egileak eta bai obrak eragin handia izan dute hurrengo belaunaldiengan, dela poesia edo literatura arloan, dela rap edo musika arloan. Proiektu honetan itzulpenaren prozesuan bete beharreko urratsak azalduko dira; prozesu horretan, ez da soilik garrantzitsua itzulpena edo emaitza, baizik eta arazo posibleen azterketa sakona; hala nola, gaztelaniaren eta euskararen aldeak musikalitateari dagokienez. Gainera, jatorrizko testuaren funtzio eta sentsazio berberak lortu beharko ditu itzulpenak, eta poesia izanik, helburua horixe izan daitekeela esan ohi da.

Gata Cattanaren liburu hau zenbait arrazoirengatik hautatu dugu. Lehenik eta behin, esan beharra dago irakurri bezain pronto gudan zerbait aldatu zuen liburu izan zela, nolabait identifikatuta sentitzen ginelako ia poema guztietan. Horrez gain, aipatzekoa da haren lehen liburu izan zela, autoeditatua, eta argialetxeek ez zutela argitaratu artista hil arte. Bestalde, liburu hautatu izanaren beste arrazoi bat da artistak eta liburuak ondorengo belaunaldietan izandako eragina, baita gudan eta gure poesian ere. Amaitzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu Cattanak egiten zuen nahasketa poesiaren eta raparen artean, oso fina baitzen haren abestien eta idatzien arteko marra; horrexegatik ere dugu oso gustukoa, haren rapa bereziki ona iruditzen baitzaigu.

Itzulpenarekin eta prozesuaren analisiarekin lortu nahi duguna nahiko argia da: batetik, ama-hizkuntzan irakurtzea gustatuko litzaigukeen liburu euskarara ekartzea, ingurukoek eta ondorengoek aukera hori izan dezaten, eta bestetik, poesia itzultzeak izan ditzakeen behaztopak aztertzea eta haiei konponbidea bilatzen ikasi eta azaltzea. Oso beharrezkoa ikusten dugu horrelako liburuak euskarara ekartzea; alde batetik, izan ditzagun guk ere liburu eta erreferentzia on eta askotarikoak geure ama-hizkuntzan, eta bestetik, euskarazko poesia egon badagoen arren, garrantzitsua deritzogulako, bai euskararentzat eta bai euskal hiztunontzat, bilduma hori handitu eta eskaintza zabaltzea —dela jatorriz euskaraz sortutakoa, dela itzulpena—, gure hiztegia, eta ondorioz, iruditeria umezurtz gera ez dadin. Horrenbestez, lortu nahi dena liburu osoa itzultzeko lagin batekin hastea da eta horren azterketa egitea, etorkizunean eredu gisa hartzeko

itzuli gabekoa itzultzeko. Aldi berean, zeregin honen helburu nagusia itzulpen literario baten prozesuaren ezaugarri eta zailtasun nagusiak zein diren argitzea izango da.

2. Testuingurua

a. Egilea, Gata Cattana eta Ana Isabel García Llorente.

Ana Isabel García Llorente —*Ana Sforza* edo *Gata Cattana* gisa ezaguna— 1991ko maiatzaren 11an jaio zen Adamuzen, Kordoban eta 2017ko martxoaren 2an hil zen Madrilén, 26 urte besterik ez zituela, shock anafilaktiko batek eragindako bihotzeko arazoak zirela-eta. Rapeko munduarentzat konpondu ezinezko galera izan zen (Peiró & Pereira, 2018). Artista polifazetikoa zela esan ohi da: «Rapeadora de noche. Poetisa de día. Polítologa a ratos» (Castro, 2017, azken atala). Gata Cattana feminista ere bazen, eta eragin handia zuen horrek bai bere poesian, bai bere rapean.

Azken horretan hainbat gai eta estilo konbinatu zituen, une oro, poesia eta protesta mezuez beteta, bai feministak, baita politikoak ere. Erritmo flamenkoen eragina ohikoa da haren musikan eta Andaluziako erreferentzia kulturalak berriz, poesian. Oso gaztea zenean sartu zen musika munduan flamenkoa abesten, baina pixkanaka rap eta elektronikaren alde egin zuen balantzan, sustraiak ahaztu gabe, jakina.

Hemezortzi urterekin Granadara joan zen zientzia politikoak ikastera, eta hiri hark asko markatu zuen artista, baita han ezagutu zuen Anabel lagunak ere (harekin hasi zuen *Cattana* taldea, eta izen artistikoa handik datorkio). Gata Cattanak 2012an argitaratu zuen lehen diskoa (*Los siete contra Tebas*, Eskiloren tragedian inspiratuta) Anabel atzerrira joan zenean, eta handik pixkanaka joan zen ateratzen beste diskoak: *Anclas* (2015), *Inéditos 2015* (2016) eta azkenik, hil ondoren plazaratu zen *Banzai* (2017). Horrez gain, poemak idazten jarraitzen zuen, baita errezitaldietan eta *Poetry Slam* izeneko txapelketetan —parte hartzaileek poemak errezitatzen dituzte dramatizatuta— parte hartzen ere (2014ean, adibidez, Granadako leihaketa irabazi zuen lehen aldiz parte hartzen ari zela, eta urte berean Mallorkan Espainiako finalista geratu zen).

Bandcamp plataforman argitaratu zituen autoeditatutako erreferentzia multzo bati eta Nico Misery edo Miguel Grimaldo ekoizleen laguntzari esker, rap berriko pertsona ospetsuenetako bat bihurtu zen. Oinarri elektronikoa eta rapa uztartzeaz gain, poetikotasuna ere gehitzen zion gizarteko kontuak, historia eta kontu emozionalak batuz. Hil baino aste gutxi lehenago Madrilgo Sol aretoan eman zuen azken kontzertua disko berria aurkezteko.

Hil ostean, MIN (*Premios de la Música Independiente*) sarietan Gailentzen ari den Artista Onenaren Altafonte saria (*Premio Altafonte al Mejor Artista Emergente*) irabazi zuen 2017an (Sánchez, 2017) eta Hip Hop eta Musika Urbanoaren Album Onenaren saria (*Mejor Álbum de Hip Hop y Músicas Urbanas*) 2018an (Premios de la Música Independiente, 2018).

Heriotzak nolabait mito kategoriara igo zuen Gata Cattana, nahiz eta zuen talentuagatik, baldintzengatik eta konpromisoagatik musika espainoleko izar handietako bat izan zitekeen adituen ustez (Izquierdo, 2018).

Literaturari dagokionez, bizirik zegoela liburu bakarra argitaratu zuen —lan honetarako hautaturiko *La escala de Mohs* poesia-liburua—, eta hil ostean, *No viene a ser carne* antologia kaleratu zuten, idatzita baina argitaratu gabe utzi zituen poemekin.

Ibilbide osoan landu zituen gaien artean ohikoenak Andaluziako kultura, motibo historikoak eta Antzinaroko mitologia dira, batez ere, kultura klasikoa eta antzinako Egipto, baina baita garai haietako poesia, filosofia, saiakera, narratiba eta masa-kulturaren erreferenteak ere. Horrez gain, gai sakon asko ere landu zituen; besteak beste, materialismo dialektikoa, andaluzismo politiko-kulturala, introspektorainoko antiglobalizazioa, existentzialismoa eta hark garaikidetasunean duen isla. Alabaina, une oro feminismo erradikalaren begirada kritikoz egiten zuen, eta helburu edo desio nagusi bat zuen: sorkuntza artistikoaren bidez historia gainditzea («Gata Cattana», 2022).

Rapean eta musikan ez ezik, bestelako alorretan ere eragina izan du haren poemen eta abestien bidez; esaterako, 2018an, Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitateko kazetaritza eta zientzia politikoetako ikasle batzuek *Lisistrata* izeneko emakumeen protesten aldeko aldizkaria sortu zuten, Gata Cattanaren abesti ezagun bat oinarri hartuta hain zuzen ere.

Horrez gain, artista eta bere lana gogoratzeko, omenaldiak, oroitze ekitaldiak eta poemen errezitaldiak egin dira; hala nola, Madrilen, Adamuzen, Kordoban eta Granadan. Bestalde, 2021ean *ETERNA* izeneko pelikula-dokumentala ere grabatu zuten eta azaroan jakitera eman zuten laster estrenatu nahi dutela. Juan Manuel Sayalonga zinemagileak zuzendu eta ekoitzi du eta Gata Cattanari eta bere obra guztiari omenaldia egin nahi izan dio.

Artista andaluziarrak izan duen eraginaren erakusle dira, besteak beste, Elena Codes poeta kordobarrak adierazitakoak (Jiménez, 2019), edo *Las Ninyas del Corro* bikote raperoak behin baino gehiagotan bai abestien hitzetan eta bai elkarrizketetan (De la Iglesia, 2020, Gaibar, 2022) azaldutako miresmena. Adibide bat jartzearen, azken elkarrizketa batean honako hau esan zuten:

Ambas compartimos la idea de que era la única rapera que nos transmitía algo; toda ella era arte y poesía. Sin duda alguna, nos habría encantado conocerla y charlar con ella. Para el rap actual definitivamente fue un soplo de aire fresco y puro; ha creado escuela. (Mor.bo, 2020, 3. paragrafoa).

Laburbilduz, Gata Cattana artistak eragina izan du arlo artistiko ugartan, eta beraz, esan liteke bizitza laburra izan arren, gaur egungo artistek bizirik mantentzen dutela oraindik haren ondarea. Aipatutako guztiagatik, interesgarria deritzogu artista honen lana euskeratzea, eta horretarako baliatu nahi dugu lan honek emandako abagune hau.

b. Obra, La escala de Mohs.

Aipatu bezala, lan honetarako *La escala de Mohs* poema-liburua hautatu dugu itzulgai. Zehazki egilearen heriotzatik bost urte igaro ostean, aukera eta une ona iruditu baitzitzaigun haren obraren lagin bat euskaratzea, omenaldi bat egitearren alde batetik, eta haren ondarea bizirik dagoela adierazteko bestetik. Gainera, ezein hizkuntzara itzulita ez dagoen idazle eta poema-liburua dira, eta horrenbestez, interesgarria generitzon lehen itzulpen hori egiteari.

Nahiz eta bereziki liburu ezaguna ez den, Gata Cattana berak argitaratutako liburu bakarra da, eta oraindik itzulita ez dagoenez, abagune ona iruditu zaigu. Azken finean, honela aurkeztu izan da liburu hau: «es el legado de un talento magnífico, el de la politóloga, rapera y poeta Gata Cattana, un mito y una voz imprescindible para nuestras generaciones». (Penguin Books, 2022)

2016. urtean, *La escala de Mohs* liburuaren 300 ale argitaratu zituen artista andaluziarrak inprimaketa txiki-txiki batean autoeditatuak *Homo Stultus* argitaletxe independentearekin (maketazio eta diseinuaz arduratu ziren). 2017an, *Arcesis* argitaletxeak berrargitaratzea erabaki zuen poetaren zorigaiztoko heriotzaren ondorioz, eta irabazi guztiak Gata Cattana fundazioarentzat izan ziren («La escala de Mohs»,

2021). *Penguin Random House* argitaletxearen arabera, *La escala de Mohsen* berrargitalpena 2017ko literatura-denboraldiko gertaera garrantzitsuenetako bat izan zen (Penguin Books, 2022). Hurrengo urtean, hots, 2018an, *Penguin Random House* argitaletxeak edizio osatu berri bat egin zuen *Verso & Cuento* bildumaren barnean *Aguilar* zigilupean; bertan, artistaren argitaragabeko poemak, hark eskuz idatzitakoak, *Don Iwanaren* marrazki berri originalak eta Irene X poeta eta lagunaren hitzaurrea jasotzen dira. Horrez gain, ale batzuek QR kodea ere badute behin betiko argitalpen honetan eta horri esker, egilearen ahotsa entzun daiteke poemetako bat errezipituzten. Hirugarren argitalpenaren arduraduna Ana Llorente izan da, Gata Cattanaren ama, eta, labur esanda, helburu nagusitzat du poetaren galeraren ostean, haren zabalkundea lortzea («La escala de Mohs», 2021).

Liburuak guztira hogeita hiru poema (argitalpen batzuetan gutxiago) eta lau kontakizun labur ditu, baita Don Iwana artistaren ilustrazioak eta Antonio Díez Fernández poetaren (eta argitalpen batzuetan Irene X poetaren) hitzaurrea ere.

Poema-liburuaren kritika gehiegi ez dagoen arren, egin diren gutxiek azpimarratzen dute haren bikaintasuna. *Fantasticmag* magazinean adibidez, honako hau esan zuten: «sus poemas incluyen sublimes reflexiones en torno a temas como la identidad, el feminismo, la crítica social, el amor, la repetición de los errores agónicos...» (*Fantasticmag*, 2019). *Eldiario.es* hedabide digitalaren arabera ere artista honek bazuen etorkizunik: «Bajo la cabeza, Gata Cattana llevaba el cartel de promesa. Muchos la veían como la sucesora de La Mala Rodríguez, otros como la que vendría a salvar el rap femenino y feminista en nuestro país» (*Eldiario.es*, 2017). *As* egunkariak berriz, honako hau aipatu zuen duela urte batzuk artista andaluziarrari buruz:

Un año después de su muerte la gente no se ha olvidado de Gata Cattana. Su música sigue siendo referente para muchas jóvenes empoderadas y los designios musicales que transitó en su corta pero intensa carrera artística a buen seguro serán objeto de estudio en un futuro. (Izquierdo, 2018)

Bestalde, *Playground Magazinek* gaztelaniazko rapean egon den ahots *indartsu* eta *finenetako* bat dela dio, eta zera gehitzen du: «Capaz de invocar, en una misma canción, a la pensadora Silvia Federici, la Teoría King Kong de Virgine Despentes, o a la republicana Clara Campoamor» (Isabel, 2022). Horrez gain, *Vice* aldizkariak egindako elkarrizketa batean, honako hau azpimarratzen da: «Gata comparte todo lo que le pasa

por dentro con sinceridad y determinación. Porque, en ella, las ideas se hacen arte; se hacen inmortales» (Ossorno, 2017). Azkenik, kritikekin amaitzeko, Mala Rodríguez raperoak Gata Cattana —askorentzat Rodriguezen merezitako ondorengoa— hil ostean, zera txiokatu zuen: «Inteligente y sensible, su trabajo estaba cambiando muchas cosas» (Rodríguez, 2017).

Poema-liburuaren izenburuak ere eman du zeresana, askorentzat bete-betean asmatu zuen, Meg Raven liburu kritikariaren ustez adibidez: «el acierto de que eligiera un título así» (Raven, 2019). Mohs eskala edo jatorrizkoan dioen bezala *La escala de Mohs*, hamar mineralen taula bat da haien gogortasunaren arabera ordenatua, eta, oro har, beste edozein mineralen xaflakortasuna neurtzeko erabilia. Horixe bera da askoren iritziz (Fantasticmag, 2019) poema-bilduma horrek egiten duena: norberaren printzipio eta balioen eskalaz galdetu; horregatik nahasten du irakurlea barrutik eta behartzen du jarreraren bat hartzera. Azken finean, gogortasun eskala bat da orrialde bakoitza sastakada bat delako, eta zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta gogorrago jotzen du; ez soilik hitzak erabiltzeko gaitasunagatik, baita etengabeko erreferentzia beliko, politiko eta mitologikoengatik ere (Raven, 2019). Izenburuaren ostean datoz haren poemak —gehienak luzeak eta korapilatsuak— orrialde osoak betez ideia sendoz eta erraiak aterata. Horrenbestez, ez dira ugariak gune zuriak, justu kontrakoa. Poema bakoitza letra zurrumbilo bat da raparen izaerarekiko leial, inolako su-etenik gabe amaierara arte.

Poema-liburu honetan gai ugari lantzen dira, besteak beste, mitologia, nortasuna, kritika sozial eta politikoa, feminismoa eta maitasuna, une oro erreferentzia klasikoak nahastuz gaur egungo errealitatearekin. Azpimarratzekoa da beraz, gaiek baino, estiloak lotzen dituela poemak bilduma honetan.

c. Aukeratutako poemen lagina.

Hauek dira GrAL honetan itzultzeko aukeratu ditugun poemak:

1. *Con las manos*
2. *Malditos sean*
3. *Demasiado para un poeta*
4. *Todo lo demás, no*
5. *Hojita de menta*
6. *La escala de Mohs*

Poemario osoa itzultzea gehiegi zenez, lagin esanguratsu bat euskaratzea erabaki dugu. Zehazki, hautatu ditugu poemak itzulpenerako erronkak mahai gainean jartzeko erabilgarriak izan daitezkeenak; erronka horietako batzuk dira, esaterako, jatorrizko poemen musikalitatea, esaldien egitura eta euskaraz zailtasunak eragin ohi dituzten genero kontuak.

Horrez gain, lehen poema eta azkena antologiarako beharrezkoak zirela iruditu zitzaizkigun zenbait arrazoiengatik. Hala nola, lehendabizikoa itzultzeko gogo handia genuen aspalditik Olatz Salvador bakarlariaren «Aho uhal» diskoko hamargarren kantagatik (*Eskuekin*): Gata Cattanaren «Con las manos» poesian oinarritu baitzen eta haren off ahotsarekin uztartu baitzuen musika. Azkenak, berriz, izena ematen dio poema-liburuari eta lehenarekin batera, artistaren poemarik ezagunenetakoa da.

Hobetsi ditugun gainerako poemak onenak iruditu zaizkigu aipatutako erronkak aztertzeko eta beste poemetan ere aurkitu arren erronkaren bat, hauek bereziki erakarri gintuzten Gata Cattanaren ezaugarriak —esaldien mozketak adibidez— aztertzeko aukera ematen baitute.

3. Metodologia

a. GrALaren metodologia

Hasteko, Gradu Amaierako Lan hau hiru zatitan banatzea erabaki dugu.

Lehendabizi, idazlearen, obraren eta hautatutako laginaren azterketa egin dugu, eta horretarako, dokumentazioa bilatu behar izan dugu. Prozesu horren azalpena lanaren lehen zatian jarri dugu, oro har, egindako lana kokatzen laguntzen duelako.

Bigarren atalari dagokionez, poemak itzultzeko unea izan da, baina hori aurrera eramateko onuragarria iruditu zitzaigun hurrengo atalean azalduko dugun itzulpen enkargua sortzea eta geure buruari alegiazko egoera bat planteatzea ikasturte hauetan irakasle batzuek egin diguten eran.

Hirugarren eta azken zatian berriz, itzulpenaren inguruko gogoeta egin dugu beste hiru puntutan zentratuz: musikalitatea, esaldien ordena eta generoa. Hausnarketa honetan itzulpen erronka nagusiak aztertu ditugu eta adibidez adibide azaldu dugu zergatik egin ditugun itzulpen horiek eta zein arrazoi dauden erabaki horiek hartzeko.

b. Itzulpen enkargua

Beraz, bigarren atalari dagokionez, esan bezala itzulpen enkargu faltsu bat planteatu dugu. Azken finean, GrAL honen funtsa den itzulpena egiteko, zentzuzkoa eta interesgarria iruditu zaigu —ikasturte hauetan guztietan irakasleek egin duten moduan— itzulpen enkargu guztiz itxurazko bat sortzea, uste baitugu asko lagunduko digula itzulpen lagina itzultzeko egoeran sartzen.

Bezeroa: Katakarak argitaletxea.

Hartzailea: euskaldunak oro har.

Argitalpen eguna eta lekua: 2022ko abendua, Iruña.

Itzulpenaren arrazoia: Katakrakek argitaratzen dituen liburuak gizarte mugimenduetako prozesuak laguntzeko dira, martxan dauden eztabaidak sustatzeko eta berriak sortzeko, eta horren barruan ikusten dute poema-liburu hau. Gata Cattana erreferentetzat dute eta haren poemak euskaraz izatea behar-beharrezkoa dela iritzi dute. Gainera, uste dute euskaldunen artean interesa piztuko duen liburua dela eta irakurle asko hurbilduko

direla kuriositatez. Amaitzeko, azpimarratzekoa da 2022an argitaratu nahiko luketeela poetaren heriotzaren bosgarren urteurrena gogoratzeko.

Jatorrizko testuaren formatua: liburua digitalean ez dutenez eta eskubideekin presaka ibili direnez, paperean eman digute liburua. Enkargua liburu osoarena da, baina hiruzpalau itzultzailereri eskatu digute poemetako 6 itzultzeko lagin gisa leihaketarako.

c. Itzulpen prozesuaren faseak

Enkargua burutzeko jarraituko ditugun pausoak Nordek (2012: 46-47) proposatzen duen eredu zirkularrean oinarrituta daude, baina itzulpen enkargu honen berezitasunak direla-eta, aldaketa batzuk egin behar izan dizkiogu; besteak beste, jatorrizko testua transkribatu eta berrikuspen fase bat gehiago ere gehitu behar izan ditugu. Horrenbestez, honako hauek izan dira, azkenerako, enkargua gauzatzeko jarraitu ditugun faseak:

1. Jatorrizko testua jaso eta itzulpen enkargua aztertzea.
2. Jatorrizko testua lehen aldiz irakurri eta transkribatzea.
3. Jatorrizko testua eta oinarrizko egoera sakon aztertzea.
4. Dokumentazio prozesua.
5. Xede hizkuntza eta kulturara itzultzea.
6. Berrikuspena.
7. Egin beharreko zuzenketak eta hobekuntzak burutzea.
8. Xede testua idaztea.
9. Berrikuspena eta kalitate kontrola.
10. Azken bertsioa bezeroari bidaltzeko prestatzea.

4. Azterketa

GrAL honetan *Mohs Eskala* itzultzeaz gain, interesgarria deritzogu geure esperientzia bera itzulpengintzaren ikuspegitik aztertzea. Horrenbestez, itzulpenak planteatu dizkigun erronka nagusiak ikertuko ditugu jarraian, itzulpen arazo zehatzak ikusiz adibide gisa eta eman dizkiegun irtenbideak azalduz.

Lehenik eta behin, esan beharra dago poesia itzultzeak badituela berezko zailtasunak: «poeten intimitate hori ulertzea ez da beste generoetan —narratiban, esaterako— bezain sinplea. Erabiltzen diren hizkuntzak eta hitzek garrantzi berezia dute, eta poetaren unibertso poetiko zehatzaren parte dira» (Garcia, 2017). Hori dela eta, jatorrizkoaren unitate-lexikoei eta hizkerari erreparatu behar izan diegu itzultzerako orduan.

Itzulpen honek planteatutako erronka nagusienak musikalitatea, esaldien ordena eta genero kontuak izan dira, eta beraz, behin zailtasunak sailkatuta, horiek aztertuko ditugu orain.

a. Musikalitatea

Hasteko, idazlea musika munduan ere aritutakoa denez, ulergarria da pentsatzea haren poesiak ere musikalitatearekin jolastuko duela. Aldi berean, Gata Cattanak berak onartu izan zuen poesiarekin askeago jokatzeko zuela, eta erritmoari baino, garrantzia handiagoa ematen ziola barru-barruko gaiak kontatzeari: «En la poesía trato temas más profundos; si cabe, más personales. Uso siempre verso libre y eso me da alas y otras posibilidades que con el rap no puedo hacer» (Ossorno, 2017).

Alabaina, poesia orok du neurria, besteak beste, arnas neurria izendatutakoa eta artista andaluziarrak asko erabiltzen du hori, irakurketa erritmoa kontuan hartzen baitu. Horren adibide dira haren poesia errezitaldiak; hala nola, aipaturiko Poetry Slam leihaketan. Errezitaldi horietan ikus daiteke artistak garrantzi handia ematen diola poemak erritmo zehatzez irakurtzeari; musikalitate berezia ematen die horrela bertsoei eta Gata Cattanaren poesiak hain berea duen kutsua lortzen du.

Horregatik guztiagatik, errimari eta musikalitateari garrantzia eman nahi izan diegu gure itzulpenetan; izan ere, artistaren berezitasun bat dela esan liteke. Musikalitate eta erritmo hori gure itzulpenetan ager zedin, hau da, doinu hori lortzeko helburu zehatzez, Youtube plataforman aurkitutako bideoak —hain zuzen ere, Gata Cattanarenak haren

poemak errezitatzen— erabili ditugu. Lan honetarako itzulitako lagina orotara sei poemak osatzen dute, eta haietako bosten bideoak aurkitzea lortu dugu; zehazki, *Con las manos* (Escaparate de Poesía, 2018b), *Demasiado para un poeta* (Escaparate de Poesía, 2019), *Todo lo demás, no* (Gata Cattana, 2015), *Hojita de menta* (Poetry Slam Granada, 2016) eta *La escala de Mohs* (Escaparate de Poesía, 2018a), hau da, ez dugu topatu *Malditos sean* poemaren errezitaldirik.

Beraz, ohar gaitezke Gata Cattanaren poemak, oro har, ez direla errimadunak eta idazleak bertso askeak lehenesten dituela. Horrenbestez, itzulpenetan ere haren ikuspuntua saiatu gara izaten presente eta askeago jokatzen, mezuari garrantzi gehiago emanaz musikalitateari baino. Adibide bat jartzearen, ikus ditzagun ondorengo bertsoak:

1- Musikalitatea / Gainerako guztia, ez / Lo dices como si.

Que no hemos trabajado ni un sólo día. Lo dices como si fuera el progreso.	Ez dugula lan egin ezta egun bakar batean ere. Aurrerapena balitz bezala diozu.
Lo dices como si por eso nuestra palabra valiera la mitad y tuviéramos que demostrar que somos dignos del pan que comemos.	Hori dela eta gure hitzak erdia balioko balu bezala diozu, eta jaten dugun ogia merezi dugula frogatu beharko bagenu bezala.

Kasu honetan, Gata Cattanak musikalitatea ematen dio jatorrizkoari, besteak beste, «Lo dices como si» egitura errepikatuz. Itzulpenean, ordea, egitura hori errepikatzea arrotz geratzen denez, esaldia zertxobait aldatu eta «bezala diozu» amaieran jartzea erabaki dugu. Musikalitate hori gal dezakeen arren, euskararen eta mezuaren ulergarritasunaren alde erabakirik onena iritzi diogu.

2- Musikalitatea / Gainerako guztia, ez / Me sé todo el cuento.

Y también tengo altos conocimientos en geopolítica y me sé todo el cuento,	Eta baditut jakintza eta ezagutza sakonak geopolitikan eta ezagun ditut kontu horiek guztiak,
---	--

Bigarren adibide honetan ere ikus daiteke mezua lehenetsi dela errima asonantearen aurrean. Hasieran, musikalitatea gordetzeko eta jatorrizkotik gertuago itzuli nahian honako hau bururatu zitzaigun «Eta baditut jakintza eta ezagutza sakonak / geopolitikan eta badakizkidala koplak». Alabaina, ohartuta irakurlearentzat mezua ulertzeko zaila izan zitekeela, uste izan genuen hobe zela jatorrizkotik zertxobait aldendu eta argi uztea jatorrizkoaren ideia zein den. Horrenbestez, musikalitatea baino, mezua lehenetsi dugu egilearen pentsamoldea jarraituta.

Hala eta guztiz ere, onartu behar dago jatorrizko poesiaren musikalitatea ere gorde nahi izan dugula zenbaitetan eta mezua lehenetsi ordez, batzuetan egiturak errepikatzea edo errima bilatzea lehenetsi dugula. Besteak beste, adibide hauetan:

3- Musikalitatea / Eskuekin / Los vis a vis.

los vis a vis entre jornada y jornada de trabajo (aunque no haya trabajo)	lanaldi eta lanaldi arteko bisean bisekoak, (nahiz eta lanik ez egon)
---	---

Poemaren zati honetan gaztelaniakoaren kutsua mantentzeko errepikapena erabili da, nahiz eta «lanaldien artean» adibidez esan zitekeen.

4- Musikalitatea / Eskuekin / Al ritmo que.

al ritmo que se multiplican los pobres, al ritmo que se multiplican los infortunios	behartsuak biderkatzen diren erritmoan, ezbeharrak biderkatzen diren erritmoan
--	---

Beste adibide honetan, *pobre* eta *infortunio* esateko beste erak egon arren, *behartsu* eta *ezbehar* erabiltzea otu zaigu musikalitatea gorde eta hitz-jokoa lortzeko.

5- Musikalitatea / Eskuekin / A la altura de.

Y ese amor está a la altura de Urano, a la altura de Urano y de Gea juntos,	Eta maitasun hori Uranoren mailan dago, Uranoren eta Gearen mailan,
--	--

Kasu honetan, jatorrizkoaren mezua ez da guztiz ondo ematea lortu itzulpenean: lehendabizikoan, Urano eta Gea biak batera dauden mailari egiten dio erreferentzia eta bigarrenean, ez da zehazki hori ulertzen, Urano eta Gea dauden maila baizik. Beste

itzulpen aukera bat hori azaltzea izango litzateke («Urano eta Gea biak batera dauden mailan» edo horrelako zerbait esanez), baina esaldi korapilatsua eta luzeegia iruditu zitzaigun, eta ondorioz, esaldi motzagoa lehenetsi genuen musikalitatea gordez.

6- Musikalitatea / Eskuekin / Y saben encontrarlo.

<p>Por eso entienden de arte y saben encontrarlo donde lo haya, aunque no lo haya (que siempre lo hay).</p>	<p>Horregatik ulertzen dute arteaz eta badakite aurkitzen edonon, nahiz eta ez egon, (beti dagoen arren).</p>
---	---

Aipatutakoa gertatu zitzaigun adibide honetan ere: «y saben encontrarlo donde lo haya» itzultzeko zailtasunak genituen. Alde batetik, «eta badakite / ez dagoen tokian ere topatzen» erabiltzea bururatu zitzaigun, baina erritmoa mozten zuen eta zati honetan garrantzitsua generitzon mezua labur eta errimaz jasotzeari, poemaren zati berezi bat baita. Horrenbestez, «aurkitzen edonon» erabiltzea lehenetsi genuen hurrengo bertsoarekin errima zuelako eta neurri bera lortzen genuelako horrela.

b. Esaldien ordena

Bestalde, lehen aipatu dugun moduan, esaldien barruko ordenarekin eta lerroen arteko zatiketarekin ere izan ditugu zailtasunak. Jakina da euskara eta gaztelaniaren sintaxia oso ezberdina dela eta horrek erronkak eragin ditzake itzulpenetan, are gehiago poesia itzulpenetan. Hala izan da itzulpen prozesu honetan, eta hainbatetan euskararen sintaxiari men eginez —euskara naturala bilatu nahi izan baita—, jatorrizkoaren ordena aldatu behar izan dugu. Hau da, jatorrizkoaren ordena hainbatetan ezinezkoa zen edo traketsa geratzen zen euskaraz, eta horrenbestez, poemak berak eskatu ohi duen moduan, esaldien ordena hori aldatzea erabaki dugu. Hona hemen adibide batzuk:

7- Esaldien ordena / Eskuekin / Los pobres aman.

<p>Los pobres aman con las manos. Los pobres aman en la carne y con gula,</p>	<p>Behartsuek eskuekin maite dute. Behartsuek haragiaz maite dute eta gose-egarriz,</p>
---	---

Lehen adibide honetan, argi ikus dezakegu euskaraz beharrezkoa dela «con las manos» hori lehenago aipatzea, esaldi traketsa izango genuke bestela. Era berean, bigarren

esaldian naturalago deritzogu «maite dute» lehenago ematea, bi kontuei erreferentzia egiten diela argi gera dadin.

8- Esaldien ordena / Eskuekin / Al ritmo que se multiplican.

<p>al ritmo que se multiplican los pobres, al ritmo que se multiplican los infortunios y los desastres naturales que golpean siempre en las casas de los pobres.</p>	<p>behartsuak biderkatzen diren erritmoan, ezbeharrak biderkatzen diren erritmoan, baita hondamendi naturalen abiaduran ere, zeinak beti kolpatzen duten behartsuen etxeetan.</p>
--	---

Kasu honetan, sintaxi aldetik jatorrizkoarenari bira eman diogu lehen eta bigarren lerroetan beharrezkoa zelako gure ustez euskaraz, errima lortzeko eta egitura errepikatzeko. Hirugarren eta laugarren esaldian aldaketak egin behar izan ditugu ondo uler zedin hondamendi naturalen erritmoan ere esan nahi zela. Amaitzeko, azken esaldiari ere nolabait bira eman behar izan diogu sintaxi egoki eta ulergarri bat bilatzearen. Horren harira, Gata Cattanak «siempre / en las casas de los pobres» bertsoei ematen dien erritmoa, indarra eta etenaldiak direla-eta, bi lerrotan banatzea erabaki dugu; eta ondorioz, jatorrizkoan baino lerro bat gehiago geratu zaigu. Alabaina, erritmo eta indar hori lortzeko beharrezkoa dela uste dugu.

9- Esaldien ordena / Gainerako guztia, ez / Lo dices.

<p>Que no hemos trabajado ni un sólo día. Lo dices como si fuera el progreso.</p> <p>Lo dices como si por eso nuestra palabra valiera la mitad y tuviéramos que demostrar que somos dignos del pan que comemos.</p>	<p>Ez dugula lan egin ezta egun bakar batean ere. Aurrerapena balitz bezala diozu.</p> <p>Hori dela eta gure hitzak erdia balioko balu bezala diozu, eta jaten dugun ogia merezi dugula frogatu beharko bagenu bezala.</p>
---	--

Bertso hauei dagokienez, itzulpena korapilatsuagoa izan da; zailtasun handiak izan ditugu. «Lo dices» egitura errepikatzen du eta jatorrizkotik gertu itzultzen ari ginenez, tentazioa izan dugu hasieran erabiltzeko *diozu*. Ohartu gara, ordea, euskaraz ez dela oso natural geratzen aditza aurrean jartzea kasu honetan, eta ondorioz, erabaki dugu

bigarren esaldiari bira eman eta *diozu* amaieran jarriz errima horrela gordetzea. Aldi berean, azken bi lerroak ere trukatu behar izan ditugu aditza amaieran jartzeko.

10- Esaldien ordena / Gainerako guztia, ez / Algunos todavía.

Algunos todavía no han desertado. Algunos todavía creen en una idea.	Batzuek ez dute oraindik amore eman. Batzuek sinesten dute oraindik ideia batean.
---	--

Azkenik, adibide interesgarri hau ekarri nahi izan dugu. Bi lerro hauetan «Algunos todavía» errepikatzen du Gata Cattanak poemari amaiera emateko eta euskaraz «Batzuek oraindik» itzultzea otu ahal zaigu. Alabaina, kasu honetan *oraindik* unitate-lexikoa geroago jartzea erabaki hobea iruditu zitzaigun, «amore eman» eta «ideia batean» unitate-lexikoei egiten baitie erreferentzia, eta horrenbestez, haien aurrean jarrita indar handiagoa ematen baitie.

Esaldi barruko ordenari erreparatu ondoren, interesgarria deritzogu lerroen arteko ordena aldatzeari erreparatzea. Ondorengo adibideetan, lerroak trukatu dira euskara naturala eta, oro har, poesia naturala lortzeko.

11- Esaldien ordena / Eskuekin / Los vis a vis.

los vis a vis entre jornada y jornada de trabajo (aunque no haya trabajo)	lanaldi eta lanaldi arteko bisean bisekoak, (nahiz eta lanik ez egon)
---	---

Lehendabiziko adibide honetan, lehen bi esaldiak kanbiatea erabaki dugu, «bisean bisekoak» lerroarekin hasteak esaldi nahasgarri bat sor zezakeela iruditu baitzaigu.

12- Esaldien ordena / Gainerako guztia, ez / Que dicen.

y consignas de venganza que dicen muy poco de nosotros,	eta mendekurako esloganak, geure buruez ezer gutxi diotenak,
---	--

Gauza bera gertatzen da bigarren kasu honetan ere, baina bigarren eta hirugarren lerroekin. Naturaltasun gehiago du gure hizkuntzan aditza amaieran jartzeak, eta beraz, hautu hobea iruditu zaigu aldaketa egitea.

13- Esaldien ordena / Eskuekin / Y han inventado.

y han inventado las mejores obras y los mejores instrumentos.	eta obrarik ederrenak eta instrumenturik onenak sortu dituzte.
--	---

Aurreko adibidearen harira, bi lerro labur hauetan ere aditzarekin lotuta dago naturaltasuna. Gure iritziz, aditza lehen lerroan jarri ordez, erabaki hobea da bigarren lerro amaieran jartzea.

Hurrengo adibide honetan berriz, aldaketa gehiago egin behar izan ditugu naturaltasunaren izenean; besteak beste, orain esandakoaren aurka, aditza hasieran jartzeko. Esaldi honetan aditzak aurrean egotea eskatzen du, eta beraz, «azal diezadakezun» eta «sal diezadakezun» aurreratu ditugu. Gainera, azken hiru lerroei ere ordena aldatu behar izan diegu ulergarriak izan zitezen.

14- Esaldien ordena / Gainerako guztia, ez / Que me cuentas.

por más lógica matemática que me cuentas, por más sentido común que me vendas, que no se consigue nada por esas sendas que auguramos día tras día cuando la desidia nos infla la panza.	azal diezadakezun logika matematikoa gorabehera, sal diezadakezun sen ona gorabehera, ez dela ezer lortzen egunak joan egunak etorri alferkeriak sabela puzten digunean iragartzen ditugun bide horietan barna.
--	--

Azkenik, seigarren poemako bertso bat dugu jarraian adibide gisa. Kasu honetan, guztiz birmoldatu behar izan dugu bertso osoa ulergarria izan zedin eta euskaraz natural eman zezan belarrira. Horrenbestez, esaldiak ezberdin moztu ditugu eta zenbait lerroz ere aldatu ditugu. Hainbat buruhauste eman dizkigu zati honek: hasieran, gure proposamena «Neure burua saldu nuen hiru milimetroko / urdin tanzanita koloreko irisengatik» zen, baina ohartu ginen hori jarriz gero, iris bakarraz ari ginela zirudiela eta gaztelaniakoan neurketa abstraktuagoa da. Ondo ulertzeko beste adibide bat jar dezakegu: gaztelaniaz «un metro cuadrado de asfalto» edo «un asfalto de metro cuadrado» ez dira gauza bera, eta antzeko zerbait gertatzen da bertso honetan ere. Horregatik guztiagatik,

euskarazkoan neurketa abstraktu hori bilatu nahi izan dugu, eta ondorioz, esaldia birmoldatu dugu.

15- Esaldien ordena / La escala de Mohs / Yo me vendí.

<p>Yo me vendí por tres milímetros de iris azul tanzanita en cada ojo, lo que hace un total de seis por dos de ancho milímetros de iris azul radiactivo, azul <i>heisenberg</i>.</p>	<p>Neure burua saldu nuen urdin tanzanita koloreko hiru milimetro irisen truke, begi bakoitzean, orotara sei bider bi milimetro zabal iris urdin erradiaktiboko kolorekoak, <i>heisenberg</i> urdina.</p>
--	---

c. Genero kontuak

Amaitzeko, generoari erreparatzeko parada ere hartu dugu. Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da euskararako itzulpenetan egon ohi den zailtasun orokorra dela, genero gramatikalaren presentzia txikiak hainbat zailtasun dakartza-eta; esaterako, jatorrizkoan genero bat berariaz markatu nahi denean. Hala eta guztiz ere, genero markarik gabeko hizkuntza izatea abantaila ere bada beste batzuetan. Horregatik guztiagatik, gaztelaniatik itzultzean —genero gramatikalak pisu handiagoa du hizkuntza honetan— genero markak kontuan hartu beharreko kontuak dira. Gainera, Gata Cattanak bere poesian askotan erabiltzen du femeninoaren marka, eta beraz, itzulpen erronka handia izan da hori nola itzuli erabakitzea.

Erabakiak hartzeko, ordea, hausnartzeko abagunea beharrezkoa iruditu zaigu, eta ondorioz, euskal itzultzaileek zer pentsatzen duten eta zer egiten duten bilatzea erabaki dugu. Euskal itzulpengintzan genero gramatikalaren gaiak interesa piztu du azken urteetan eta horren erakusle dira azken hamarkadako hausnarketak eta lanak. Batzuk aipatzearen EIZI Eren *31 eskutik* blogean Aiora Jakak egindako gogoeta (Jaka, 2013) edo Leire Vega Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle ohiak egindako Gradu Amaierako Lana (Etxeberria, I. & Vega, L., 2019) iruditzen zaizkigu bereziki interesgarriak. Haietan honako hau azpimarratzen da: «Erdarako maskulino generikoa euskaratzerako garaian arazorik sortzen ez den arren, arazoak genero marka espezifikoak denean sortzen dira». Hau da, urte luzez euskarak genero bereizketarik ez duela goraipatu izan dugun arren, horrek itzultzaileei arazo ugari sortzen dizkigula ikus dezakegu. Oro har, euskal

itzulpengintzan gailentzen den itzulpen-estrategia genero linguistikoaren marka ezabatzearena da, nahiz eta itzulpen feministaren estrategiak oso erabilgarriak izan batzuetan. Hala eta guztiz ere, euskal letretan genero markaren inguruko hausnarketa mahai gainean dago oraindik, eta beraz, ez dago erantzun argirik.

Gure itzulpenetara itzuliz, genero markaren adibide batzuk ditugu jarraian, bertan zer erabaki hartu ditugun eta zergatik azaltzeko.

16- Genero kontuak / Hojita de menta / Nosotras.

Nosotras siempre hemos sido lo que nunca seremos.	Gu* beti izan gara sekula izango ez garena.
---	---

Lehen adibidean honetan esaterako, Gata Cattanak *nosotras* erabiltzen du, hots, femeninoaren marka. Kasu honetan, «gu» da burura etortzen zaigun lehen baliokidea, baina gero kontzientzia feminista (ala matxistak) generoa markatu beharko genukeen edo ez galdera egin diezaguke. Horrenbestez, «gu, emakumeok» erabiltzea otu zitzaigun, generoa markatzeko. Alabaina, poeman askotan errepikatzen den hitza da eta une oro generoa markatuko bagenu bertsoa zamatzeko arriskuan eror gintezke. Gainera, lehenago aipatu dugun guztiagatik, itzulpen-estrategiei dagokienez, generoaren marka ezabatzea erabaki genezake. Haatik, poema osoa irakurrita genero markak garrantzia duela iruditu zaigu —ez baitu emakumez ari dela aipatzen esplizituki, baina beren inguruan ari da hizketan—, eta ondorioz, genero marka nolabait aitortu beharko genukeela pentsatu genuen. Hori dela eta, azkenean poema honetan, lehen *nosotras* horren baliokide, «gu» erabiltzea hautatu dugu, baina oin-oharra gehituz. Lehendabiziko hitza denez, izartxoak ez du irakurlea poematik ateratzen, eta aldi berean, argi utz diezaiokezu handik aurrerako «gu» guztiak genero marka femeninoa dutela jatorrizko testuan. Beraz, hau gehitu dugu poemaren amaieran:

¹Jatorrizkoan testu osoan zehar *nosotras* erabiltzen da, euskaraz, ordea, itzultzaileak erabaki du hobe dela *gu* soilik erabiltzea poema gehiegi ez kargatzeko.

17- Genero kontuak / Hojita de menta / Más mentirosa que nunca.

decía mi madre y después dirías tú más mentirosa que nunca.	esan ohi zuen amak eta gero zuk esango zenuen inoiz baino gezurriago.
---	---

Bigarren adibidean, *mentirosa* adjektiboa genero marka femeninoduna dugu eta itzulpenean aipatutako marka azpimarratzeko tentazioak izan arren, irakurritako guztiagatik generoa ez markatzea hautatu dugu. Horrenbestez, adibide honetan euskal itzulpengintzan ohikoa den itzulpen-estrategia erabili dugu, hots, ezabaketa.

18- Genero kontuak / Todo lo demás, no / Hija.

y Ana hija, qué poco sabes de la vida.	eta Ana, ume, zer gutxi dakizun bizitzaz.
--	---

y que Ana hija, cuándo bajarás a la tierra.	eta Ana, ume, noiz jaitsiko zara lurrera.
---	---

Beste bi itzulpen hauetan, gaztelaniaz hain ohikoa den *hija* erabili du idazleak. Euskaraz «alaba» baliokidea dugun arren, horrelako testuinguruetan ez da batere erabilia eta ez du natural ematen belarrira. Horrenbestez, «neska» aukerara jo liteke, baina zein puntutara arte da *hija* hori «alaba» edo «neska», eta zein puntutara arte hitz egiteko modua? Hausnarketa hori dela eta, generorik gabeko izena txertatzea hautetsi dugu, «ume» hain zuzen ere, euskaraz testuinguru horretan erabiltzen baita, eta hortaz, natural gelditzen baita.

Amaitzeko, azken adibidean ezberdin jokatzeko erabaki dugu, hots, ez dugu ezabaketaren teknika edo orokortzea baliatu. Kasu honetan, Gata Cattanek «Don-Quijota» izena erabiltzen du ironikoki, Cervantesen On Kixoteri erreferentzia eginez. Genero marka erabiltzeak, ordea, badu bere zentzua poema honetan eta zentzu hori ironiarekin batera mantendu nahi bada, beharrezkoa da nola edo hala genero marka gordetzea. Ondorioz, itzulpenean gaztelaniako genero marka erabili da irakurleari ulertarazteko ez dela On Kixotez ari, baizik eta haren baliokide femeninoaz.

19- Genero kontuak / Todo lo demás, no / Don-Quijota.

Que te crees Don-Quijota y vas por ahí combatiendo gigantes	On Kixota zarela uste duzu eta hor zabilzala erraldoien aurka borrokan
---	--

5. Ondorioak

Lehenik eta behin, azken atal hau hasi nahiko genuke azpimarratuz Gradu Amaierako Lan honek emandako abagunea etengabeko ikasketa aurrera eramateko. Zeregin honi esker, itzultzaile profesionalen egitekoan murgildu gara premisa eta helburu batzuekin, baita epemuga batekin ere. Murgiltze horretan oso baliagarria egin zaigu itzulpen-enkargua, zeinak lagundu digun aldiro testuinguruan kokatzen eta erabakiak hartzeko orduan zer egin hautatzen. Beraz, azpimarratzekoa da bai itzulpenak eta bai bere inguruko hausnarketek itzultzaile gisa praktikan jarri eta ikasitakoa gauzatzeko balio izan digutela. Gainera, etorkizuneko itzulpenetarako baliagarriak egingo zaizkigun teknikak eta erronkak ikusi ditugu, eta horrek eragina izan du gure itzultzeko eran, hau da, lan honi esker ikasi dugu non jarri arreta horrelako itzulpenetan, nola eman bira poemei eta zein diren itzulpen literario bat egiterakoan aurkitu ditzakegun erronkak. Aldi berean, zeregin honi esker ohartu gara gaur egun zein diren gure barnehutsak eta hobetzekoak, ezinbestekoa izanik antzemate hortan tutorearen figura, itzulpenak zuzentzetik aparte, pentsaketa sakonera bideratu baikaitu aldiro. Ondorioz, aipatutako guztiagatik, gure ikaskuntzarako baliagarria egin zaigun lana izan da.

Horrez gain, poesia-liburuaren ezaugarriari esker, graduan zehar hainbeste landu ezin izan dugun itzulpen arlo batean sakontzeko aukera izan dugu, itzulpen literarioan hain zuzen ere. Zehazki, poesia izan da gehiegi landu ez dugun atala, eta horrenbestez, erronka pertsonala ere bazen haren inguruan hausnartu eta itzultzen ikastea, eta sentsazio onekin amaitu dugula esan liteke. Gainera, itzulpen literarioaren barnean, poesiaren ezaugarri eta berezitasunez ohartzen joan gara lanean aitzina egin ahala, eta Bego Montorio Uribarren tutorearen bete-beteko arduraldiari eta laguntzari esker, praktikarako aukera bikaina izan da, baita genero hau itzultzearen behaztopen ulermena ere. Alabaina, burututako lan eta hausnarketei esker ohartu gara graduan zehar poesia itzultzeko gutxieneko prestakuntza onuragarria izango litzatekeela etorkizunerako, literatur espezialidade bat dela agerikoa baita, eta ondorioz, berariazko lanketa bat behar baitu.

Azken ataleko hausnarketan geuk hautatutako erronkak, hau da, musikalitatea, esaldien ordena eta genero kontuak, landu izanak Gata Cattanaren estiloaren jabekuntza eta menperatze bat eman digu trukean eta oso aberasgarria deritzogu elkartruke horri. Aztertzeo aukeratutako puntuak poemen lagina eta idazlearen ezaugarriak ikertzeko

aproposak ziren, eta horri esker, hausnarketa baliagarriak atera dira. Hala eta guztiz ere, lanaren hasieran zailtasun batzuk topatzea espero genuen, baina generoarena adibidez ez genuen antzeman. *La escala de Mohs* lehen aldiz irakurtzean, ez ginen erronka horretaz ohartu ere. Euskararen ezaugarrien ondorioz, generoaren kontua ez da aldeztatik planteatzen den zerbait, baina irakurritako artikulu eta lan guztiei —eta oro har, lan honi— esker, ohartu gara zein puntu garrantzitsua den, zenbat eragiten duen gure itzulpenetan eta zenbat dagoen oraindik haren inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko.

Horrez gain, hasieran planteatu ditugun erronkei erantzutea lortu dugu Gradu Amaierako Lan honetan eta helburuak bete ditugula esan genezake. Batetik, poemen lagina euskaratu dugu eta horrekin atak ireki dizkiogu liburu osoa itzultzeko aukerari. Aldi berean, euskarazko poesiaren eskaintza zabaltzeko ahalegina egin dugu hiztegia eta hizkuntza literarioan gure ekarpena eginez. Horrez gain, helburu nagusia ere bete dugu: itzulpen literario baten prozesuaren ezaugarri eta zailtasunak zein diren argitzea. Amaitzeko, jatorrizko testuaren funtzio eta sentsazio berberak lortzen saiatu gara une oro, horretarako erabiliz, besteak beste, Gata Cattanaren poesia errezitaldien bideoak musikalitate hori eskuratzeko, eta gure iritziz, helburua betetzea lortu dugu.

Amaitzeko, GrAL hau labur geratzen denez, gainerik besterik ezin izan dugu aztertu poesiaren itzulpen prozesua —musikaltasuna, esaldien ordena eta genero kontuak aztertuz soilik eta azaletik—, baina, beharbada, etorkizunera begira lan honek ikerketarako atak zabal ditzake eta sakontzen jarrai dezakegu gai honen inguruan.

Bukatzeko, gustatuko litzaiguke azpimarratzea zeregin honek eskainitako aukera. Itzulpena ate asko irekitzen dituen giltza da eta horrelako lanei esker, irakurle euskaldunei agian ezezagun zaien artista eta obra bat gerturatzea lor daiteke. Ondorioz, Itxaro Borda Xarriton idazleak dioenaren harira, *idazle periferikoak* euskaratzea izan da gure ideia, Ane Garcia Lopez itzultzailek dioen gisara «Atzerriko idazle periferikoak gurera ekarri eta eredu berriak geurean txertatu; poesia-ereduak eraldatzeaz gain, gai berriak gizarteratuko genituzke horrela» (Garcia, 2017).

Laburbilduz, dokumentazioan eta itzulpen prozesuan buru-belarri egindako lanak eta erabakiak hartzeko orduan egindako gogoek eta haien azalpenek honako lan hau osatzea dute emaitza; baita ondorioz, *La escala de Mohs* poema-liburuaren lagina ere.

6. Bibliografia

Castro, R. (2017). 'Gata Cattana', rapera y poetisa. *Diario de Córdoba*. <https://www.diariocordoba.com/etcetera/2017/03/03/gata-cattana-rapera-poetisa-36692568.html>

De la Iglesia, A. (2020). Las Ninyas del Corro. *Vein*. <https://vein.es/las-ninyas-del-corro/>

Eldiario.es (2017). El disco póstumo de Gata Cattana verá la luz en otoño. *Eldiario.es*. https://www.eldiario.es/cultura/musica/disco-postumo-gata-cattana-otono_1_3219683.html

Escaparate de Poesía. (2018a, maiatzak 10). *Gata Cattana - La Escala de Mohs* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=Rdv318fhRRs>

Escaparate de Poesía. (2018b, ekainak 15). *Gata Cattana - Como aman los pobres* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=sHDtQIzS500>

Escaparate de Poesía. (2019, apirilak 2). *Gata Cattana - Demasiado para un poeta* [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=__qh7gbhaCmc&t=35s

Etxeberria Ramirez, I. & Vega Barandiaran, L. (2019). *Euskal itzultzaileen estrategiak genero markak itzultzean*. [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibetsitatea]. ehu.eus.

<https://www.ehu.eus/documents/2007376/12850102/Euskal-itzultzaileen-estragiak-genero-markak-itzultzean.pdf/55f8505d-8921-f3e1-3bc2-5d49d61b995d?t=1599644866356>

Fantasticmag-eko erredakzioa (2019). El poemario "La Escala de Mohs" se reedita en el momento justo para reivindicar el arte de Gata Cattana. *Fantasticmag*. <https://www.fantasticmag.es/el-poemario-la-escala-de-mohs-se-reedita-en-el-momento-justo-para-reivindicar-el-arte-de-gata-cattana/>

Gaibar, L. (2022). Las Ninyas del Corro: “Lo de ‘música urbana’ es un término creado por los vejestorios para meter en el mismo saco todo lo que no conocen”. *El salto*. <https://www.elsaltodiario.com/rap/las-ninyas-del-corro-lndc-termino-musica-urbana-creado-por-vejestorios-para-meter-mismo-saco-todo-lo-que-no-conocen>

García Lopez, A. (2017). Poesía-itzulpena: jarduera periferiko baten analisisa. *Senez*. 48, 136. https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20171102/garcia/09_poesia.pdf/@@download/file

Gata Cattana. (2015, abenduak 26). *Gata Cattana en Show de Rimas* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=PDeUIjS1tOs&t=0s>

Gata Cattana (2022, maiatzak 17). In *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/wiki/Gata_Cattana

Isabel García, A. (2022). *La escala de Mohs*. 8. Penguin Random House. 978-84-03-51955-8

Izquierdo, J. (2018). Las redes sociales homenajean a Gata Cattana un año después de su muerte. *As*. https://as.com/epik/2018/03/02/portada/1519986577_708094.html

Jaka Irizar, A. (2013, urriak 21). Itzultzaileon kontzientzia feminista... ala matxista? [Blog bateko mezua]. 31 *eskutik*. <http://31eskutik.eizie.eus/2013/10/21/itzultzaileon-kontzientzia-feminista-ala-matxista/>

Jiménez, M. (2019). Elena Codes: la generación Z latiando en sus diarios. *Cordópolis*. https://cordopolis.eldiario.es/cultura/elena-codes-generacion-z-latiando-diarios_1_7039369.html

La escala de Mohs (2021, martxoak 26). In *Wikipedia*. [https://es.wikipedia.org/wiki/La_escalade_Mohs_\(Gata_Cattana\)](https://es.wikipedia.org/wiki/La_escalade_Mohs_(Gata_Cattana))

[7Ctwcamp%5Etweetembed%7Ctwterm%5E837348826008678400%7Ctwgr%5E%7Ctwcon%5Es1 &ref_url=https%3A%2F%2Fwww.lasexta.com%2Fnoticias%2Fcultura%2Fhomenaje-mala-rodriguez-rapera-gata-cattana-inteligente-sensible-trabajo-estaba-cambiando-muchas-cosas_2017030358b94b480cf28c3fe970b063.html](https://www.lasexta.com/noticias/cultura/homenaje-mala-rodriguez-rapera-gata-cattana-inteligente-sensible-trabajo-estaba-cambiando-muchas-cosas_2017030358b94b480cf28c3fe970b063.html)

Sánchez Muñoz, I. (2017). Ganadores Premios MIN 2017. *Sonido Indie*.
<https://sonidoindie.com/ganadores-premios-min-2017/>

7. Eranskinak: Jatorrizkoa eta itzulpena

1. *Con las manos*

No aman de igual forma
los ricos y los pobres.

Los pobres aman con las manos.
Los pobres aman en la carne y con gula,
en las peores estampas,
en condiciones famélicas
y con todo en su contra.

Los pobres aman sin bonitos decorados.
Entienden de lunes y de tedios domingueros
y de gastos imprevistos de facturas
y de angustias que embisten mes a mes a quemarropa.

El amor de los pobres no sale por la ventana
aunque el dinero entre por la puerta,
(que nunca entra),
(aunque no haya ventanas).

Los pobres han aprendido
a amarse a oscuras por eso mismo.
Han aprendido a amarse mal alimentados,
mal vestidos, malqueridos,
porque el hambre agudiza el ingenio
y en sus jardines también crecen las flores
(aunque no haya jardines).

Los pobres han aprendido a aprovechar
los vis a vis
entre jornada y jornada de trabajo

(aunque no haya trabajo)
y saben darse placeres nunca tasados,
de valor incalculable,
y han aprendido a disfrutar las circunstancias
y la sopa de sobre,
el viejo colchón y la cesta de enero.

Y parece que su amor se yergue
indestructible a pesar de;
a pesar de las miles de plagas,
de los sueños frustrados
y fracasos andantes,
de las crisis cíclicas
y de hambrunas
y de guerras,
más valiente que Heracles,
más Odiseo que Odiseo.

Y parece que su amor se extiende
y se multiplica
al ritmo que se multiplican los pobres,
al ritmo que se multiplican los infortunios
y los desastres naturales que golpean siempre
en las casas de los pobres.

Y ese amor está a la altura de Urano,
a la altura de Urano y de Gea juntos,
y es el único arma que tienen los pobres
para defenderse.

Por eso han aprendido a cultivar flores
y a cantar bien sus penas,
y han inventado las mejores obras
y los mejores instrumentos.

Por eso entienden de arte
y saben encontrarlo donde lo haya,
aunque no lo haya
(que siempre lo hay).

Y han aprendido a aprovechar el carisma
y la jerga,
y a escribir poemas inmortales
sobre amores complicados,
y saben de cosquillas,
y saben de boleros,
y saben de desnudos
y de darlo todo,
que no es más que lo puesto:
las manos y la lengua
la forma de otear al horizonte
y los cánticos en contra del patrón.

Yo siempre he amado de esta manera.

Yo te amo como aman los pobres,
y me temo
que durante mucho mucho tiempo

esto seguirá siendo así

2. *Malditos sean*

Malditos sean los mapas, las coordenadas, las carreteras
y las vías de la Renfe.

Malditas las unidades de medida:
las horas, los kilómetros, los números.
Malditas sean las comunidades autónomas,
el tendido eléctrico,
las líneas telefónicas,
las conexiones automáticas
y la red virtual.

¡Malditos los poetas!
¡Maldito Salinas, maldito Machado!
Y Gustavo.
Y Federico.

Malditas las tostadas
con café por las mañanas.
Malditas las canciones
que me arrancó, los testigos.

Malditas las camas de uno cuarenta,
la prisa, el alcohol y los planes a la larga.

Malditos los pensamientos impuros,
las ideas lujuriosas y la libido.

Malditas sean también las comparaciones
y los dólares, la ley del suelo
y la burbuja inmobiliaria.

Malditas las parejas de la mano,

malditos los besos sin tapujos,
maldito el camino de vuelta.

Y tus ojos.

Y todas las cosas que me recuerdan que tú no estás.

3. *Demasiado para un poeta*

De repente: la chica.

Sentada en el borde.

Con las manos temblorosas, con la voz,
con el foco alumbrando como si no lo notara,
con sus montones de papeles y naufragios esparcidos por el suelo...

La camisa blanca, como si fuera inocente.

Los pelos revueltos,
la mirada esquiva frente a esa masa
que tiene pinta de pedir explicaciones.

Luego mira hacia atrás como buscando el impulso,
respira, se yergue sobre sí misma
y se levanta con un gesto desafiante.

“¡Decidle! Decidle a León Felipe que yo también
me sé todos los cuentos.

Que cuatro generaciones después
nos siguen durmiendo los mismos cuentos
y entorpeciendo y atormentando los mismos cuentos.
Y que yo tampoco sé muchas cosas es verdad,
pero con tanto cuento, las pocas se me olvidan
y las que no no me dejan dormir.

La poesía es un arma cargada de miseria
que aniquila al enemigo y al que pulsa el percutor,
que erosiona despacito.

Decidle a Celaya que se explique,
que cuatro generaciones después seguimos sin saber
qué entiende él por futuro.

Y que éste arma ni aprieta ni ahoga.
Y rasca muy bien pero donde no pica.

Decidle, que ahora que nos dejan
decir que somos quien somos,
(y tampoco mucho...)
es porque no somos nadie,
porque vamos a la nada entusiasmados
y en fila de a uno.
Porque somos demasiado poco peligrosos.

Y ya de paso a Unamuno:
Que vencieron y convencieron,
y que convencieron muy bien.

Y que luego vino la paz social
que tanto esperaba,
y la calma se hizo insoportable,
y la gente por consecuencia se hizo
insoportablemente mediocre,
y la vida siguió como siguen las cosas
que no tienen mucho sentido, como decía aquel.

Se toma un respiro, bebe un sorbo de agua y se aclara la voz.
Luego se aparta el pelo de la cara y continúa diciendo:

“¡Y el pobre Neruda!
Supongo que le habrán dicho que ya cayó Stalingrado,
que algo sabrá de este tinglado y estará revolviéndose en su tumba.

Lo cierto es que pudimos escribir versos más tristes
que los suyos en noches de lascivia y Pandemónium,
en noches que no le deseo a nadie porque después de Al Alba
todas vinieron cargadas de buitres callados y oscuros presagios.

El pobre Neruda, el ingenuo Neruda.

Claro que vinieron noches más tristes y versos de hiel,
a ver qué se creía, ya era hora de que se enterara.

Pero no le contéis de Stalin, no le pongáis la tele, eso no.

Eso sería demasiado cruel.

Mejor continuar el show como en la peli esa... Good Bye Lenin

Le partiríamos el corazón si descubriera cómo está
el mundo de los vivos,
de cómo la jodimos y fallamos en todo lo que se podía fallar.

Si se enterara jamás volvería a escribir un sólo poema de amor,
y todos los demás vendrían tapiados con metralla y hormigón,
ni una sola azucena, ni una sola.

Y tampoco queremos eso.

Es demasiado para un poeta.

4. *Todo lo demás, no*

Que sí, que todo eso es verdad.

Que portamos estandartes incendiarios
y discursos agresivos
y consignas de venganza
que dicen
muy poco de nosotros,
y que a veces da miedo pensarlo,
que vamos por ahí con el ceño fruncido
y de nada nos sirve.

Que increpamos
y discrepamos de todo
cuanto se conoce,
por más lógica matemática
que me cuentes,
por más sentido común
que me vendas,
que no se consigue nada
por esas sendas que auguramos
día tras día cuando la desidia
nos infla la panza.

Que no reconocemos
autoridad ninguna
y sembramos la polémica
y todo es política
y qué pesados os ponéis con eso
y Ana hija, qué poco sabes de la vida.

Todo eso es verdad.

Que no hemos trabajado
ni un sólo día.
Lo dices como si fuera el progreso.

Lo dices como si por eso
nuestra palabra valiera la mitad
y tuviéramos que demostrar que
somos dignos del pan que comemos.

Que en qué me baso,
que la vida es así y asao
y que lo que inventamos no tiene
ni pies ni cabeza,
que los libros son muy bonitos
pero son libros
y que Ana hija,
cuándo bajarás a la tierra.

Que te crees Don-Quijota
y vas por ahí combatiendo gigantes
cuando aquí fuera sólo quedan
las ruinas de Bankia.

Todo eso es verdad.

Porque cada vez son menos
los momentos de lucidez pero todavía
los tengo.
Y también tengo altos conocimientos
en geopolítica y me sé todo el cuento,
a ver si ahora os creéis que habéis descubierto América,
que donde manda capitán no manda marinero
y todo eso.

Somos jóvenes pero no somos idiotas.

Y puede que parezca un poco de idiota
este proyecto que me encomiendo,
lo de ir por ahí huesudamente,
paupérrimamente a lomos de Rocinante
combatiendo a magnates que son peor
que cien gigantes,
que mil gigantes,
de los de antes,
de los que molaban.

Estamos luchando contra un invisible.
Estamos luchando en cada flanco,
contra todos, contra nosotros mismos
porque todo es política y qué pesados os ponéis
con el temita.

Que cualquiera nos parece
un enemigo potencial
en un entorno hostil
que nos excluye,
nos ningunea la palabra
y nos aburre.
Nos aburre mucho,
eso es lo peor.

Y por eso arengamos paridas
y tenemos este humor tan hijoputa,
porque si no dime tú a mí
cómo se aguantan los veintitrés
en esta celda,
en esta España que rezuma desvergüenza,
si no es blasfemando en cada flanco,

en tanta medida como nos dejan,
porque muchas veces pienso cosas
que no puedo escribir
y tengo que reírme yo sola
y la gente se cree que estoy loca.

Una loca que se ríe de cosas
que está prohibido escribir.
Esa es la España que nos calza.

Por eso nos mofamos
ahora que podemos,
y nos declaramos insumisos,
y enarbolamos un
QUE SE JODAN
tan grande que ni les cabe,
y bailamos sobre tumbas,
y vivimos en pecado
según todos los credos,
y nos gusta lo prohibido
e incluso han conseguido
que nos guste lo que somos.

Niñatos soñadores
que inventan fórmulas definitivas,
que cantan todavía insaciables
a pesar de los momentos de lucidez,
a pesar de que luchamos contra un invisible
y la tarea nos quede, probablemente,
demasiado grande.

Algunos todavía no han desertado.
Algunos todavía creen en una idea.

(Todo lo demás es estar muerto)

5. *Hojita de menta*

Nosotras siempre hemos sido
lo que nunca seremos.

Hemos vaciado la copa
y esputado los restos,
hemos visto a la mediocridad
vestirse de hegemonía,
hemos mirado
con los ojos soberbios,
perdonavidas,
y les hemos perdonado,
y es algo que jamás nos perdonarán.

Hojita de menta, hojita de menta,
nos columpiamos en la ignorancia,
creímos en el conocimiento
en perjuicio del *status quo*,
elegimos la epopeya como Aquiles,
elegimos la manzana,
y eso es algo que jamás nos perdonarán.

Nosotras fuimos
de costumbres prehistóricas,
de leer junto al fuego,
el arrabal y la vanguardia,
los textos sagrados y las fisuras,
eruditas hasta la arcada,
sabiondas, repelentes
hasta la médula.

Fuimos un mucho de puta
y un poco de monja,

demasiado humanas para endiosarnos,
demasiada idea para tan poca carne,
fuimos tan del sur
que le dimos la vuelta,
fuimos tan incógnitas
que ni nosotras mismas
sabíamos muy bien.
Y por si acaso el revólver.

«Lo importante no es ser muy listo
sino ser buena persona»,
decía mi madre y después dirías tú
más mentirosa que nunca.

Nosotras quizá no éramos tan listas
pero ni mucho menos buenas personas.
Nosotras no éramos personas,
y eso es algo que jamás nos perdonarán.
Nosotras éramos los idus de marzo,
la conjura, la disidencia,
la disidencia siempre,
fuera cual fuera el autor
o el imperio.
nosotras éramos un blanco perfecto,
la plebe enardecida pedía crucificados
y ahí nosotras veníamos a dárselos
con los brazos abiertos,
alguien tenía que profanar toda esa mierda.

No eran tiempos fáciles
para nadie,
para nosotras fue como matarnos,
como la flecha en el talón,
el comienzo del nuevo siglo

y la vuelta a la Pangea.

Los humanos se reubicaban
y corrían a por los dólares, despavoridos.
Los empresarios promovían reformas laborales
y los gobiernos legalizaban la esclavitud.

Y, en medio de todo esto,
me dices que te vas,
y te vas,
y me dejas aquí con los planos sin acabar,
con los apuntes de filósofos
que dicen cosas de esas que te gustan.
Y la palabra en la boca.
Eso es lo de menos.

Lo demás es cargar yo sola
con todas esas dudas
existenciales, tripipoéticas, estrafalarias,
y escucharte contradecirme y aconsejarme
por donde quiera que vaya,
como una voz en off,
como un fantasma.

Dos locas siempre son menos locura
que una sola loca,
dos locas es algo más normal,
pero, ¿una loca sola vaciando la copa
y esputando los restos,
escuchando voces
y clamando al cielo,
leyendo a Deleuze
sin que tú me lo expliques
y mentándote por ahí

como una aparición?

Eso sí que no.

Eso es algo que jamás te perdonaré.

6. *La escala de Mohs*

Todo el mundo se vende.
Al final..., todo el mundo.

Yo me vendí por tres milímetros
de iris azul tanzanita
en cada ojo,
lo que hace un total de seis
por dos de ancho
milímetros de iris azul radiactivo,
azul *heisenberg*.

No sé si al diablo o a quién...
Porque en Cupidos no creo,
pero cambié mis veredas livianas
y el jardín de trofeos
y mis cuevas de ego sin fondo,
sin tregua ni amparo,
y esta mala fe de augurio
y el mañana, y el ahora...

por seis por dos milímetros de iris
de topacio azul
de dureza ocho
en la escala de Mohs.

Y cambié mis sonrisas infalibles,
hábilmente conseguidas,
y las ganas de los otros,

y el discurso de Gomorra
y de Artemisas en Arcadias...

En resumidas cuentas,
la heroicidad de la independencia,
la certeza de no ir viendo fantasmas
como Bécquer
y, he aquí la paradoja:
por seis por dos de pupila azul turmalina,
con algo de cobalto y de polonio,
y lo de polonio no lo digo por el color.

Al final todo el mundo...
Todo el mundo tiene un precio.

Y quién me iba a decir a mi
que después de tanto principio,
tanta ley y tanto código,
tanto juez y tanta ética,
tanto farol *bien tirao* '...',
que el mío iba a ser tan minúsculo.

Y siempre lo supe:

Cuando me dieron a elegir
entre la gloria o la paz,
yo ya lo sabía,
hubiera elegido lo segundo.
No soy de cantares de gesta.

Y siempre releía la historia
advirtiéndole desde mis adentros,
a ver si no cometía el mismo error.
Pero nada.
Y claro,
directa al talón.

Yo hubiera elegido lo otro,
siempre se lo dije.
Hubiera muerto a los setenta
en una islita griega mirando el mar.
Al fin y al cabo la gloria no es tanto...
La gloria debe ser morir
en una islita griega mirando el mar.
Al fin y al cabo...

¿Quién se acuerda hoy de Aquiles?
Si no es esta loca rumiante mascullando
te lo dijés.
Para eso has quedado,
para lo que quedó Troya,

para que venga ahora esta loca
rumiante mascullando *te lo dijés*
a altas horas.

Otras noches te comprendo.
Y te compadezco.
Y nos compadezco.
En cierto modo algo de razón tenías:
todo el mundo tiene un precio.

Y quién me iba a decir a mí,
quién nos iba a decir,
que el mío fuera un total
de seis por dos milímetros cuadrados
de iris tapiz de hilo persa,
azul egipcio,
Bombay Sapphire
de dureza ocho
en la escala de Mohs.

Yo hubiera elegido lo otro
siempre te lo dije.

Aunque, en cierto modo,
puede que tuvieras razón.
Quién sabe si tenías razón.

1. *Eskuekin*

Ez dute berdin maitatzen
aberatsek eta behartsuek.

Behartsuek eskuekin maite dute.
Behartsuek haragiaz maite dute eta gose-egarriz,
egoerarik okerrenetan,
premia gorrian,
eta dena kontra dutela.

Behartsuek dekoratu ederrik gabe maite dute.
Badakite zer diren astelehenak eta igande gogaikarriak,
eta ustekabeko gastuak, fakturak
eta hilero hurbil-hurbiletik erasotzen duten estutasunak.

Behartsuen maitasuna ez da leihotik ateratzen
nahiz eta dirua sartu atetik,
(inoiz sartu ez arren),
(nahiz eta leihorik ez egon).

Behartsuek ikasi dute
horregatik beragatik, ilunpetan maitatzen.
Ikasi dute gaizki janda maitatzen
gaizki jantzita, gaizki nahita,
goseak adimena zorrozten baitu
eta haien lorategietan ere hazten baitira loreak
(nahiz eta lorategirik ez egon).

Behartsuek ikasi dute aprobetxatzen
lanaldi eta lanaldi arteko
bisean bisekoak,
(nahiz eta lanik ez egon)
eta badakite elkarri ematen plazer tasatu gabeak

balio kalkulazinekoak,
eta ikasi dute egoerak gozatzin
baita zorroko zopa,
koltxoi zaharra eta urtarrileko aldapa ere.

Eta badirudi haien maitasuna goititzen dela
hautsiez, nahiz eta;
nahiz eta milaka izurrite egon,
nahiz eta amets zapuztuak
eta porrot ibiltariak,
krisi ziklikoak
eta goseteak
eta gerrak,
Herakles baino ausartago,
Odiseo baino Odiseoago.

Eta badirudi haien maitasuna zabaltzen
eta biderkatzen dela
behartsuak biderkatzen diren erritmoan,
ezbeharrak biderkatzen diren erritmoan,
baita hondamendi naturalen abiaduran ere,
zeinak beti kolpatzen duten
behartsuen etxeetan.

Eta maitasun hori Uranoren mailan dago,
Uranoren eta Gearen mailan,
eta hori da behartsuek duten arma bakarra
euren burua babesteko.

Horregatik ikasi dute loreak landatzen
eta euren penak ongi kantatzen
eta obrarik ederrenak
eta instrumenturik onenak sortu dituzte.
Horregatik ulertzen dute arteaz

eta badakite aurkitzen edonon,
nahiz eta ez egon,
(beti dagoen arren).

Eta ikasi dute karismaz baliatzen
eta jargoiaz,
eta poema hilezkorrak idazten
maitasun korapilatsuez,
eta badakite kilimez,
eta badakite boleroez,
eta badakite biluziez,
eta dena emateaz,
jantzita duten hori besterik ez da-eta:
eskuak eta mingaina
ortzi-mugari begiratzeko modua
eta nagusiaren aurkako kantikak.

Nik beti maitatu izan dut horrela.

Nik behartsuek maite duten eran maite zaitut,
eta beldur naiz
denbora luze luzean

horrek hala izaten jarraituko duela

2. *Madarika(tu)*

Madarikatuak mapak, koordenadak, errepideak
eta Renfeko trenbideak.

Madarikatuak neurri-unitateak:
orduak, kilometroak, zenbakiak.
Madarikatuak autonomia-erkidegoak,
kable elektrikoak,
telefono-lineak,
konexio automatikoak
eta sare birtuala.

Madarikatuak poetak!
Madarikatua Salinas, madarikatua Machado!
Eta Gustavo.
Eta Federico.

Madarikatuak tostadak
goizeko kafearekin.
Madarikatuak abestiak
hark erauzitakoak, lekukoak.

Madarikatuak bat berrogeiko oheak,
presa, alkola eta luzerako planak.

Madarikatuak pentsamendu likitsak,
ideia lizunak eta libidoa.

Madarikatuak halaber konparazioak
eta dolarrak, lurzoruaren legea
eta higiezinen burbuila.

Madarikatuak bikoteak eskutik,

madarikatuak disimulurik gabeko musuak,
madarikatua itzulerako bidea.

Eta zure begiak.

Eta zu ez zaudela gogorazten didaten gauza guztiak.

3. *Gehiegi, poetarentzat*

Bat-batean: neska.

Ertzean eserita.

Dardarrez eskuak, ahotsa,
argizatzen duen fokua nabarituko ez balu bezala,
paper pila eta naufragioak lurlean sakabanatuta dituela...

Ile nahasia,

begirada muker

kontu eske dirudien jendetzaren aurrean.

Gero atzera begiratu du kemen bila edo,

arnasa hartu, tente jarri

eta desfio-keinuaz altxa da.

«Esaiozue! Esaiozue León Feliperi nik ere

badakizkidala ipuin guztiak.

Lau belaunaldiren ondoren

ipuin berberak lokartzen gaituztela

eta ipuin berberak oztopatzen eta atsekabetzen gaituztela.

Eta nik ere ez dakidala askorik, egia da,

baina hainbeste ipuinekin, gutxi hori ahazten zaidala

eta ahazten ez dudanak loa galarazten didala.

Poesia miseriaz kargaturiko arma da,

akabatzen ditu etsaia eta katua sakatzen duena,

eta mantso higitzen du.

Esaiozue Celayari azaltzeko,

lau belaunaldiren ondoren oraindik ez dakigula

zer den beretzat etorkizuna.

Eta arma honek ez duela ez estutzen ez itotzen.

Eta bikain harramazkatzen duela azkurarik ez den lekuan.

Esaiozue, orain uzten digutela
nor garen, zer garen esaten,
(eta ez erabat...)
inor ez garelako,
gogotsu goazelako ezerezera
eta bata bestearen atzean.
Ez garelako arriskutsuegiak.

Eta, bide batez, Unamunori:
Irabazi eta sinestarazi zutela,
eta oso ongi sinestarazi ere.

Eta gero bake soziala etorri zela,
hainbeste esperoa,
eta barealdia jasanezin bihurtu zen,
eta jendea, horrenbestez,
jasanezinki erdipurdikoa bihurtu zen,
eta bizitzak aurrera egin zuen
zentzu handirik gabeko gauzek egin ohi duten eran,
beste hark zioen gisan.

Arnasa hartu, ur trago bat edan eta ahotsa garbitu du.
Gero ilea aurpegitik kendu eta jarraitu du esaten:

«Eta Neruda gaixoa!
Suposatzen dut esango ziotela jada Stalingrad erori zela,
zerbait jakingo baitu istilu haietaz eta hilobian jiraka eta biraka ibiliko da.

Kontua da idatzi ahal izan genuela bertso tristeagorik
harenak baino, lizunkeria eta Pandemonium gauetan,
inori desio ez dizkiodan gauetan, Al Alba eta gero
denak etorri baitziren putre isil eta zentzu ilunez kargatuta.

Neruda gaixoa, Neruda inozentea.

Etorri ziren gau tristeagoak eta bertso saminak, bai horixe,
zein uste zen ba, bazen garaia enteratzeko.

Baina ez ezaiozue kontatu Stalinena, ez ezaiozue telebista jarri, hori ez.
Krudelegia litzateke.

Hobe showarekin jarraitu peli hortan bezala... Good Bye Lenin

Bihotza erdiratuko genioke jakingo balu nola dagoen
bizidunon mundua,
nola izorratu eta huts egin dugun huts egin zitekeen guztian.

Jakingo balu, ez luke inoiz berriro maitasun poema bat bera ere idatziko,
eta beste guztiak metrailaz eta hormigoiz hesituta etorriko lirateke,
lili bakar bat ere ez, bakar bat bera ere ez.

Eta hori ere ez dugu nahi.
Gehiegi da poetarentzat.

4. *Gainerako guztia, ez*

Baietz ba, egia dela hori guztia.

Estandarte subertsiboak daramatzagula
eta diskurtso oldarkorrak
eta mendekurako esloganak,
geure buruez
ezer gutxi diotenak,
eta batzuetan beldurra ematen duela pentsatzeak,
kopetilun gabiltzala hor zehar
eta alferrik dela.

Errieta egiten dugula
eta ez gatozela bat
ezerekin ere ez,
azal diezadakezun
logika matematikoa gorabehera,
sal diezadakezun
sen ona gorabehera,
ez dela ezer lortzen
egunak joan egunak etorri alferkeriak
sabela puzten digunean
iragartzen ditugun bide horietan barna.

Ez dugula onartzen
inongo autoritaterik
eta polemika ereiten dugula
eta dena dela politika
eta zer aspergarri jartzen zaretan horrekin
eta Ana, ume, zer gutxi dakizun bizitzaz.

Egia da hori guztia.

Ez dugula lan egin
ezta egun bakar batean ere.
Aurrerapena balitz bezala diozu.

Hori dela eta gure hitzak
erdia balioko balu bezala diozu,
eta jaten dugun ogia merezi dugula
frogatu beharko bagenu bezala.

Eta ea zertan oinarritzen naizen,
bizitza holakoa eta halakoa dela
eta guk asmatzen dugunak ez duela
ez bururik ez hankarik,
liburuak oso politak direla
baina liburuak direla
eta Ana, ume,
noiz jaitsiko zara lurrera.

On Kixota zarela uste duzu
eta hor zabiltzala erraldoien aurka borrokan
hemen inguruan geratu den bakarra
Bankiako hondakinak direnean.

Egia da hori guztia.

Gero eta gutxiago direlako
argialdiak baina oraindik
izan baditut.
Eta baditut jakintza eta ezagutza sakonak
geopolitikan eta ezagun ditut kontu horiek guztiak,
ez duzue ba usteko Amerika deskubritu duzuela,
nagusiak ez badu nahi, langileak ahal gutxi duela
eta hori guztia.

Gazteak gara, baina ez tentelak.

Eta tentel samarra eman dezake
neure buruari agindu diodan proiektu honek,
hor zehar ibiltzearena hezur eta azal,
Rocinanteren gainean pobre-pobre
magnateen aurka borrokan, eta horiek okerragoak dira
ehun erraldoi baino,
mila erraldoi baino,
baina garai batekoak,
molatzen zutenak.

Ikusezin baten aurka gaude borrokan.
Alde guztietan gaude borrokan,
guztien aurka, geure buruen aurka
dena delako politika eta zer aspergarri jartzen zareten
dixosozko gaiarekin.

Edonor iruditzen baitzaigu
etsai potentziala
etsai-giroan,
eta baztertzen gaitu,
gure hitza gutxiesten du
eta aspertzen gaitu.
Guztiz aspertzen gaitu,
hori da okerrena.

Eta horregatik aldarrikatzen ditugu txorakeriak hitz suharrez
horregatik dugu hain umore putakumea,
zeren bestela esango didazu
nola jasan hogeita hiruak
ziega honetan,
lotsagabekeria darion Espainia honetan,
ez bada madarikatuz alde guztietan,

uzten diguten neurrian,
askotan pentsatzen baititut
idatzi ezin ditudan gauzak
eta bakarrik egin behar dut barre
eta jendeak uste du erotu naizela.

Ero bat barrezka
idatzi behar ez diren gauzei.
Hori da gidatzen gaituen Espainia.

Horregatik egiten diogu burla
orain egin baitezakegu,
eta intsumisoak garela aldarrikatzen dugu,
IZORRA DAITEZELA
handi bat erakusten dugu
hain handia ez baitzaie sartzen,
eta hilobien gainean dantzatzen dugu,
eta bekatuan bizi gara
kredo guztien arabera,
eta debekatutakoa dugu maite
eta lortu dute halaber
garen hori maitatzea.

Umemoko ameslariak
behin betiko formulak asmatzen,
abesten, oraindik ere aseezin
nahiz eta argialdiak,
nahiz eta ikusezinaren aurka borrokatu
eta eginkizuna, segur aski, guretzat
handiegia izan.

Batzuek ez dute oraindik amore eman.
Batzuek sinesten dute oraindik ideia batean.

(Gainerako guztia hilik egotea da)

5. *Menda hostotxoa*

Gu* beti izan gara
sekula izango ez garena.

Kopa hustu dugu
eta hondakinak oka egin,
kaskartasuna ikusi dugu
hegemoniaz janzten,
begiratu dugu
begi harroz,
handinahikoz,
eta barkatu diegu,
eta hori ez digute sekula barkatuko.

Menda hostotxoa, menda hostotxoa,
ezjakintasunean gabiltza kulunka,
jakintzan sinetsi genuen
*status quo*aren kaltetan,
hautatu genuen epopeia Akilesek bezala,
hautatu genuen sagarra,
eta hori ez digute sekula barkatuko.

Gu izan gara
historiaurreko ohituren zaleak,
sutondoan irakurri zaleak,
errebala eta abangoadia,
testu sakratuak eta arrakalak,
nazkatzeraino jakintsuak,
sasijakintsuak, gogaikarriak
hezurretaraino.

Asko izan dugu putatik
eta ezer gutxi mojatik,

gizatiarregiak jainkotzeko,
idea handiegiak hain haragi gutxirako,
izan gara hain hegokoak
buelta eman baikenion,
izan gara hain ezezagunak
guk geuk ere
apenas baikenekien.
Eta badaezpada errebolberra.

«Garrantzitsuena ez da oso azkarra izatea
pertsona ona izatea baizik»,
esan ohi zuen amak eta gero zuk esango zenuen
inoiz baino gezurtiago.

Gu agian ez ginen hain azkarrak
ez eta are gutxiago ere pertsona onak.
Gu ez ginen pertsonak,
eta hori ez digute sekula barkatuko.
Gu ginen martxoko idusak,
konspirazioa, disidentzia,
disidentzia beti,
edozein dela egilea
edo inperioa.
gu jomuga perfektua gara,
herri xumeak gurutziltzatuak eskatzen zituen
eta gu prest ginen emateko
beso zabalik,
baten batek profanatu behar zuen zikinkeria hori guztia.

Ez ziren garai onak
inorentzat ere ez,
baina guretzat hiltzearen antzekoa izan zen,
orpoan gezia bezala,
mende berriaren hasiera

eta Pangeara itzulera.

Gizakiak birkokatzen ari ziren
eta dolarren atzetik zihoazen korrika, izututa.
Enpresariak lan erreformak bultzatzen zituzten
eta gobernuek esklabutza legeztatzen.

Eta, horren guztiaren erdi-erdian,
bazoazela diostazu,
eta bazoaz,
eta utzi nauzu hemen planoak amaitu gabe,
filosofoen apunteekin
zuk gustuko dituzun gauza horiek dizkiotenak.
Eta hitza ahoan utzita.
Eta hori da gutxienekoa.

Gainerakoa da nik bakarrik eraman beharra
duda guzti horiek
existentzialak, tripipoetikoak, xelebreak,
eta zu entzutea ni gezurtatzen eta aholkatzen
edonora noala,
off ahots baten antzera,
mamu baten antzera.

Bi ero beti dira eromen gutxiago
ero bakarra baino,
bi ero zerbait arruntagoa da,
baina, ero bakarra kopa husten
eta hondakinak oka egiten,
ahotsak entzuten
eta zeruari erreguka,
Deleuze irakurtzen
zuk azaldu gabe
eta zu ahotan erabiliz hor zehar

agerpen baten antzera?

Hori inola ere ez.

Hori ez dizut sekula barkatuko.

¹Jatorrizkoan testu osoan zehar *nosotras* erabiltzen da, euskaraz, ordea, itzultzaileak erabaki du hobe dela *gu* soilik erabiltzea poema gehiegi ez kargatzeko.

6. *Mohs eskala*

Mundu guztiak saltzen du bere burua.

Azkenean..., mundu guztiak.

Neure burua saldu nuen
urdin tanzanita koloreko hiru milimetro
irisen truke, begi bakoitzean,
orotara sei bider bi
milimetro zabal iris
urdin erradiaktiboko kolorekoak,
heisenberg urdina.

Ez dakit deabruari edo nori...
Kupidorengan ez baitut sinesten,
baina trukatu nituen bidezidor hutsalak
eta garaikurren lorategia
eta amaierarik gabeko nire ego haitzuloak,
su-etenik eta babesik gabe,
eta augirioren fede gaizto hau
eta geroa, eta oraina...

sei bider bi milimetro irisen truk
topazio urdin kolorekoa
zortziko gogortasunekoa
Mohs eskalan.

Eta trukatu nituen hutsik gabeko irribarreak,
trebeki lortuak,
eta besteekiko gogoak,

eta Gomorrako diskurtsoa
eta Arcadietako Artemisena...

Laburbilduz,
independentziaren heroitasuna,
mamuak ez ikustearen ziurtasuna
Bécquerren antzera,
eta, hona hemen paradoxa:
sei bider bi begi-niniren truk, urdin turmalinakoa,
kobalto eta polonio zerbaitekin,
eta polonioarena ez diot koloreagatik.

Azkenean, mundu guztiak...
Mundu guztiak du prezio bat.

Eta nork esango zidan niri
hainbeste printzipio eta gero,
hainbeste lege eta hainbeste araudi,
hainbeste epaile eta hainbeste etika,
hainbeste farol *bien tirao* '...',
nirea hain ñimiñoa izango zenik.

Eta beti jakin izan dut:

Aukeran eman zidatenean
loria edo bakea,
nik banekien,
bigarrena aukeratuko nukeen.
Ez naiz gesta-kanten zalea.

Eta beti berrirakurtzen nuen historia
barren-barreketik abisatuz,
ea ez zuen akats bera errepikatzen.
Baina ezer ez.
Eta noski,
zuzenean orpora.

Nik bestea aukeratuko nukeen,
beti esaten nion.
Hirurogeita hamarrekin hilko nintzen
Greziako irlatxo batean itsasoari begira.
Azken finean loria ez da hainbeste...
Loriak izan behar du hiltzea
Greziako islatxo batean itsasoari begira.
Azken finean...

Nork du gogoan gaur egun Akiles?
Ez bada ero hausnarkari hau marmarka
esanizun.
Horretarako geratu zara,
Troya geratu zenerako,

etor dadin orain ero hau
marmarti ahopean esanez *esanizun*
ordu txikitán.

Beste gau batzuetan ulertzen zaitut.
Eta errukitzen naiz zutaz.
Eta errukitzen naiz gutaz.
Neurri batean, arrazoia ere bazenuen:
mundu guztiak du prezio bat.

Eta nork esango zidan niri
nork esango zigun,
nirea orotara izango zela
sei bider bi milimetro karratu
iris persiar harizko tapiza,
urdin egiptoarra,
Bombay Sapphire
zortziko gogortasunekoa
Mohs eskalan.

Nik bestea aukeratuko nukeen,
beti esaten nizun.

Baina, neurri batean,
agian arrazoia zenuen.

Nork daki arrazoia ote zenuen.